



## **SIDERURGIA INDIAN**

Ohar teknikoa

---

**2023ko uztailak 10**



# Aurkibidea

■ 1. LABURPEN EXEKUTIBOA.....	3
■ 2. MERKATU SIDERURGIKOAREN ALDERDI NAGUSIAK .....	6
3. ALTZAIRUAREN MERKATUA INDIAN.....	9
3.1. Merkatuaren neurria eta aurreikuspenak.....	10
3.2. Eskari handieneko sektoreak .....	11
3.2.1. Eraikuntza .....	11
3.2.2. Trengintza .....	11
3.2.3. Automobilgintza.....	11
3.2.4. Ekipo-ondasunak .....	12
3.2.5. Tarteko produktuak.....	12
3.3. Aurreikuspenak, inbertsio-proiektuak eta gobernuaren politikak.....	12
3.3.1. Aurreikuspenak.....	12
3.3.2. Inbertsio-proiektuak.....	13
3.3.3. Gobernuaren politikak .....	16
3.4. Altzairu-inportazioei buruzko Europako araudia eta Indiako Merkatuaren Egokitzapena .....	17
3.5. Esportazioak eta inportazioak.....	18
3.5.1. Esportatutako eta inportatutako produktu nagusiak .....	19
3.5.2. Makinak.....	20
4. BALIO KATEA .....	23
4.1. Sektoreko enpresa nagusiak .....	23
5. LEHIA MAILAKO DINAMIKAK .....	27
5.1. Merkatuko funtsezko faktoreak .....	27
5.1.1. Altzairua saltzeko.....	27
5.1.2. Makinak saltzeko .....	27
5.2. Sartzeko ibilbideak eta sartzeko oztopoak.....	28
5.2.1. Bi produktu motetarako sartzeko ibilbideak .....	28
5.2.2. Sartzeko oztopoak.....	28
5.2.3. Kontuan izan beharreko eskakizun orokorrak .....	28
6. AUKERAK.....	31
7. BIBLIOGRAFIA.....	33
8. ERANSKINAK.....	37



## 1. LABURPEN EXEKUTIBOA

Altzairuaren merkatua da, petrolioaren eta gasaren ondoren, mundu mailan bigarren garrantzitsuen. Merkatu horren barruan, munduko bigarren produktore nagusi bihurtu da India Txinaren ondoren, eta Japonia ordezkatur. Indiako merkatuak hazten jarraitzen du, herrialdearen barne-eskaerari esker. Eskari hori eraikuntzaren sektoreak bultzatu du batez ere eta hazkunde egonkorrari eustea lortu du.

Indian, altzairuzko produktu amaituen produkzioa 110 milioi tonakoa izan da 2022an eta 2027ra arte urteko igoera % 4 ingurukoa izango dela aurrez ikusi da.

Oso merkatu lehiakorra da; lehiakideen posizioa sendoa da eta zaila izan daiteke altzairu- produktore gisa sartzea. Kasu batzuetan, produktu espezializatuera mugatzen da sarbide hori. Hala eta guztiz ere, sektorea egitura mailako aldaketa garrantzitsuak bizitzen ari da, gobernuak bultzatuta, eta produkzio jasagarria lortzeko helburua dute, berotegi-efektuko gasen isurpena saihestuz. Horretarako, etorkizuneko produkzio-lantegi eta - instalazioek energia-iturri alternatiboetan oinarritutako labe-modelo berriak gehitu beharko dituzte.

Indiako merkatua kontsolidazio fasean dago gaur egun; izan ere, altzairutegi handiak enpresa txikiagoak erosten ari dira, balio erantsi handiagoko produktuak fabrikatuta edo gaitasunak handituta dibertsifikazioa lortzeko. Azken 3 urteotan, esate baterako, Tata Steel-ek Bhushan Steel, Usha Martin eta Nilachal Ispat Nigam enpresak erosi ditu. Era berean, JSWk Bhushan Power & Steel eta Monet Ispat & Energy eskuratu ditu, eta Nippon Steel-en Arcelor Mittalen arteko joint-ventureak (enpresa-elkartea) Essa Steel erosi du. Mugimendu horiek balio-kateen integrazioa eragin dute eta horrek, aldi berean, aurrez finkatutako altzairutegietarako eraginkortasun handiagoa eta prezioen hobekuntza ekarri du. Prezioen hegazkortasuna nabarmen jaitsi da altzairu-erosle handiek (auto-fabrikatzaileek, adibidez) kontratuak hiruhilekoka edo urteka ixtea lehenetsi baitute, prezioen egonkortasuna eta hornidura erregularra ziurtatzeko.

Indiako gobernuak tokiko produktuen esportazioak sustatzen ditu, beroan edo hotzean ijeztutako altzairuzko bobinei balio erantsi handiagoa emanez. Gobernuak muga-zerga bat ezarri dio burdin-minerala esportatzeari lehengai nagusia atera ez dadin eta, aldi berean, beste muga-zerga bat ezarri zien oinarritzko altzairuaren esportazioei barne-merkatua lasaitzeko, Ukrainako gerraren ondorioz bat-bateko igoerak izan baitzituen. Aldi berean, gobernuak PLIS (Productivity Linked Incentive Scheme) politika jarri zuen martxan, herrialdean balio erantsi handiagoko produktuen fabrikazioa handitzeko, hala nola altzairu elektrikoa, altzairu autopropulsatua eta abar, material horien inportazioak gutxitu ahal izateko. Zenbait lehengairen (batez ere, burdin-minerala) prezioaren kontrola egiten da eskurako merkatuan, ETEak diren produktoreen kasuan, baliabide mugatuagoak dituzten enpresei lehengai hori prezio lehiakorragoan eskaintzeko, prezioak doituz. Horretarako, nazioarteko merkatuaren egoera aztertzen da eta, ondorioz, beharren eta lortu nahi diren helburuen arabera prezioa aldatu.



Indiako merkatuak aukera handiak eskaintzen dizkie altzairua tratatzeko makinak saldu nahi dituzten Euskadiko enpresei, eta, bereziki, labeak produzitzen edo egokitzen dituztenei (erregai fosilak erabiltzen dituztenei labeekin lotuta, baina batez ere erregai alternatiboak erabiltzen dituzten labeei dagokienez, haien berotegi-efektuko gasen produkzio garbia zero bada). Hazten ari den merkatu bizia da eta barneko eskariak potentzial handia du eta kontsumoaren zatirik handiena jasaten du. Berritzeko enpresa pribatuak egindako inbertsioari eta gobernuak eskainitako pizgarriari esker, hornitzaileen partaidetza garrantzitsua duten proiektuak ari dira sortzen.



**MERKATU  
SIDERURGIKOAREN  
ALDERDI NAGUSIAK**



## 2. MERKATU SIDERURGIKOAREN ALDERDI NAGUSIAK

Burdinaren eta altzairuaren merkatua da mundu mailan bigarren garrantzitsuena (petrolioaren sektorea bakarrik du aurretik). Etengabe hazten ari den merkatua da, bi materialek industria-sektore askotan erabilera zabala dutelako eta moldakorrek direlako. Altzairu eta burdinaren industria eskatzaile nagusiak dira, besteak beste, hauek: eraikuntza, automobilgintza eta garraioa. Altzairuaren edo burdinaren produkzioarekin zerikusia duen jarduera oro hartzen du sektoreak, hau da, meatzeetako erauzketatik hasi eta bitarteko edo azken produkturaino.

Aurreikuspenen arabera, merkatuak 1,93 bilioi dolar inguruko balioa lortuko du 2027rako. Produktu siderurgikoen moldakortasunari esker, erabilera asko dituzte eta, ondorioz, haien kontsumoa hainbat sektoretan orokorra da. Hala ere, pandemiak eta Europako gerrak eragindako krisiaren eragina jasan dezake sektoreak.

Gaur egun, munduko produkzio- eta kontsumo-merkatu garrantzitsuenak Asian daude. Txina da nagusi eta jarraian India azaltzen da, 2019an Japonia gainditu baitzuen mundu mailako bigarren produktore gisa. Batez ere Txinako eta Indiako automobilen eraikuntza- eta produkzio-proiektuen kopuru handiarekin lotuta dago. Aurreikuspenen arabera, gainera, datorren urteotan merkatu horiek hazten jarraituko dute (batez ere Txinakoak).

Merkatu horretako bi azpisektore bereiz daitezke: batetik, altzairuaren eta burdinaren produkzio primarioa, minerala erauzteko eta arrabio eta burdinazko lingote bihurtzeko lanak biltzen dituen eta, bestetik, bigarren mailako altzairuzko produktuak produzitzea, burdina altzairu bihurtzea eta produktu berriak sortzeko erabiltzea jasotzen duena.

Gaur egun, altzairua produzitzeko erabiltzen diren teknologia nagusiak labe garaiak edo "Blast Furnace" (ingelesez) izenekoak, eta arku elektrikoko labeak dira: "Electric Arc Furnace", ingelesez. Lehenengo horren erabilera izan zen 2021ean ohikoena; izan ere, produkzio osoaren % 60 labe horietan egindakoa zen. Bestalde, arku elektrikoko labeen erabilera bidez lortutako produkzioa % 33koa izan zen. Gainerako produkzioa beste labe edo makina batzuekin egindakoa izan zen.

Lehia handiko sektorea da eta enpresak oso posizionatuta daude, bereziki lehiakorrak diren prezioekin. Herrialdeko lehengai ugarienek (burdinak, batez ere), gobernu gehienek babes handia dute (zentrala eta Estatu mailakoa) eta horrek burdinaren meatzaritzako ustiapena mugatzen du (esaterako, goi-mugak dituzte, eta enpresei ustiapenak saltzea araututa dago). Bestalde, merkatuan presentzia handia duten enpresa handiek meatze horiek ustiatzeko eskubideak aspaldi lortu zituzten eta, merkatuko prezioarekin alderatuta, lehengaiaren prezio egonkorragoa lortu zuten.

Ondorioz, burdin-mineralen salerosketaren Indiako merkatuan negoziatzeko aukera gutxi dago, erregulazioen kopuru handia dela eta. Horri guztiari, gainera, bertako burdinaren kontsumoa sustatzeko inportazioei muga-zergak ezarri izana gehitu behar zaio. Bestalde, altzairu espezializatuak produzitzeko behar den beste lehengairik ez dagoenez (adibidez, altzairu elektrikorako silizea), inportatu egin behar dira.

Gainera, barrak, hodiak eta balio erantsi txikiagoa duten beste produktu batzuk produzitzen dituzten lehiakideen kopurua handia da; horrek eskaintza handia sortzen du azken eroslearentzat eta, ondorioz, erosleak prezio lehiakorragoa lortzeko presio handiagoa egin dezake. Horregatik, zenbat eta handiagoa izan erositako produktu kantitatea, orduan eta neurrikoagoa izaten da prezioa.

Kontuan hartu behar da sektore hori sekulako aldaketak jasaten ari dela, batez ere trantsizio ekologikoari dagokionez. Izan ere, energia-iturri alternatiboak bilatzen (hala nola hidrogenoa) edo labe elektrikoen ahalmena handitu nahian ari dira. Horretarako, makina asko berritu eta egokitu behar dira. Gainera,



garapen-bidean dauden herrialdeetako gobernuak proiektuak finantzatzeko kanpaina handiak egiten ari dira sektore barruan eta altzairua eskatzen duten sektoreetan.



**ALTZAIUAREN  
MERKATUA  
INDIAN**






### 3. ALTZAIUAREN MERKATUA INDIAN

Produkzioari dagokionez, Indiako altzairu-merkatua da mundu mailan bigarrena. Gaur egun, handia da barne mailako eskaria eta oso positiboak dira merkatuaren hazkundearekin lotutako aurreikuspenak. Horrekin lotuta, gobernuak laguntza eta inbertsioak eskaini ditu lehenik eta behin sektorea modernizatzeko (izan ere, gaur egun, produktu gehienek balio erantsi txikia dute), bigarrenik, barne-eskaerari tokiko eskaintzarekin erantzun ahal izateko, eta Indian produzitu ondoren esportatzeko eta, hirugarrenik, garapen jasangarriko helburuak betetzeko (eta, batez ere, ingurumenarekin lotutako Pariseko akordioetan adostutakoa). Hala, energiari eta kontsumoari dagokienez modu eraginkorrean funtzionatuko lukeen sektore berdea garatu nahi da.

Hainbat tamainatako enpresak bizi dira merkatu horretan: produkzio osoa jasotzen (materiala erauztetik hasi eta azken produktua egiteraino, gehienetan labe garaiak erabilia) duten handienetatik hasi, eta enpresa txiki eta ertainak arte. Azken horiek, batez ere, baztertutako materialak birziklatzeaz arduratzen dira eta haien jarduera arku elektrikoko labeen erabileran oinarritzen da.

Geografiari dagokionez, produkzio-lantegi kopurua dela eta eskualderik garrantzitsuenak dira Odisha eta Maharastra (bakoitzak 7-8 lantegi ditu), eta jarraian Chhattisgarh, Jarkhand, Karnataka, Mendebaldeko Bengala, Tamil Nadu eta Punjab. Haietako lautan daude burdin-mineralaren erreserba handienak eta labe garai eta galdategi nagusiak. Geografikoki, herrialdearen erdialdean eta erdialde-ekialdean daude. Karnatakaren kasuan, gainera, beste industria batzuetako produkzio mailako zentro handiak daude bertan: automobilgintza, berriztagarriak, elektronika eta aerospaziala, besteak beste.



Irudia 1. Altzairua produzitzen duten lantegiak dituzten estatuen mapa. Bertan prestatua, informazio-iturria ZJELL.com



Sektore horrek herrialdeko meategietatik datorren burdin-mineralaren ia % 100 kontsumitzen du, baina koke-ikatzaren eta produktu espezializatuago batzuk produzitzeko beharrezkoak diren beste lehengai batzuen inportazioaren mende dago. Hala ere, Indiak burdin-mineralaren munduko bosgarren erreserba handiena du bere lurraldean eta, herrialdearen eskulanaren prezio baxuarekin batera, oso merkatu lehiakorra izatea ahalbidetzen du.

### 3.1. Merkatuaren neurria eta aurreikuspenak

Gaur egun, altzairuaren sektoreak herrialdeko BPGaren % 2 osatzen du eta modu egonkorrean hazten ari da barne-kontsumoari (eraikuntza, adibidez) eta altzairua eskatzen duten beste sektore batzuen hazkundeari esker. Munduko bigarren merkatu handiena izan arren, oraindik ez da pertsonako batez besteko kontsumo mailetara (globaletara) iritsi. Indiako Altzairuaren Ministerioak 2023ko otsailean argitaratutako datuen arabera, Indian, altzairuaren batez besteko *per capita* kontsumoa 77,2 kg-koa da. Beste nolabait esanda, azken 8 urteotan % 50 igo da. Dena den, munduko gainerako tokiekiko aldeak nabarmenak dira; izan ere, datu horiek munduko batezbestekoarekin alderatuta, (2021ean 235 kilo inguru) % 33 baino ez dute biltzen. Hala eta guztiz ere, guztizko zifrak kontuan hartzen baditugu, etorkizunera begira garapen handiena izango duten eta gehien haziko diren merkatuetako bat izango da hau.

Produktuaren kategoria	2021-2022		2030-2031 proiektzioa	
	Kopurua (milaka tona)	Ehunekoa	Kopurua (milaka tona)	Ehunekoa
<b>Barrak eta hagak</b>	46.017	43,5	80.000	40
<b>Estrukturala</b>	7.229	6,8	18.000	9
<b>Tren arloko materialak</b>	1.419	1,4	2.000	1
<b>Produktu luzeak, guztira</b>	<b>54.665</b>	<b>51,69</b>	<b>100.000</b>	<b>50</b>
<b>PM eta HSM plakak</b>	5.224	4,9	10.000	5
<b>Xaflak eta bobinak / Beroan ijeztutako tirak</b>	15.797	14,9	27.800	13,9
<b>Hotzean ijeztutako xaflak eta bobinak</b>	10.078	9,5	20.000	10
<b>Xaflak eta bobinak, galvanizatutakoak, lauak eta uzkurruak</b>	4.800	4,6	10.000	5
<b>Kolorearekin estalitako plakak</b>	2.415	2,3	4.000	2
<b>Xafla eta bobina elektrikoak</b>	835	0,8	2.000	1
<b>Letoizko plakak</b>	591	0,6	1.100	0,55
<b>Hodiak</b>	3.757	3,5	7.000	3,5
<b>TMBP eta letoirik gabeko produktuak</b>	32	0,03	100	0,05
<b>Produktu lauak, guztira</b>	<b>43.529</b>	<b>41,16</b>	<b>82.000</b>	<b>41</b>
<b>Altzairu ez-aleatua, guztira</b>	<b>98.194</b>	<b>92,85</b>	<b>182.000</b>	<b>91</b>
<b>Altzairu aleatua</b>	4.478	4,23	12.000	6
<b>Altzairu herdoilgaitza</b>	3.080	2,92	6.000	3
<b>Amaitutako altzairua, guztira</b>	<b>105.752</b>	<b>100</b>	<b>200.000</b>	<b>100</b>


1. taula: Barne-merkatuan kontsumitutako altzairu-produktuak. Taularen iturria: (Rao, 2023)

Azken urte fiskalean<sup>1</sup> altzairu gordinaren produkzioa 133 milioi tonakoa izan zen. Aldiz, altzairuzko azken produktuena 120 milioi tonakoa izan zen. Barne-eskaria 110 milioi tona ingurukoa izan zen eta, horrenbestez, % 17 igo zen. Esportazioen superabita egon zen inportazioekiko, nahiz eta azken hiru hilekoan erregistroan joera-aldaketa bat ikusi den; izan ere, inportazioak handitu egin dira, eta esportazioak gutxitu. Ondorioz, defizit-egoerara iritsi da.

<sup>1</sup> Urte fiskala apirilaren 1ean hasten da, eta hurrengo urteko martxoaren 31n amaitu.



## 3.2. Eskari handieneko sektoreak



2. taula: Materiala eskatzen duten sektore nagusiei bideratutako altzairuaren ehunekoa. Iturria: Kartikay, K., Bandy, J., & Tenneti, L. (2019). *The Indian steel industry: Growth, challenges and digital disruption*. PwC.

Gaur egun, barne-eskaria da Indiako altzairu-sektorearen euskarri nagusia Gobernuak altzairua eskatzen duten sektoreetan inbertsioak egin dituelako. Ondorioz, altzairu garbiaren esportatzaile izateari utzi dio eta azken produktuen inportatzaile garbi bihurtu da. Izan ere, altzairuaren prezioak jaitsi egin dira Ukrainako gerrak sortu duen geldialdiaren ondorioz, eta prezio lehiakorragoak lortu dira Indiako merkaturako. Hain zuzen ere, hango etxeko prezioak igo egin ziren aurreko urteko azken hiruhilekoan.

### 3.2.1. Eraikuntza

Gaur egun, eraikuntza da altzairu kantitate handiena eskatzen duen sektorea inbertsio publikoak bultzatuta. Hain zuzen ere, pandemia aurreko urteetan, guztizkoaren % 62 kontsumitu du sektore horrek. Sektore horren baitan, bereziki garrantzitsuak dira berrikuntzako ekimenak eta zehazki hiri adimendunak sortzearekin lotutakoak (70 baino gehiago herrialdean).

### 3.2.2. Trengintza

Trengintzaren sektoreak, 2019an, herrialdean kontsumitutako altzairu guztiaren % 3 erabili zuen. Sektore horretako proiektu nagusiak hauek izan dira: lehendik zegoen azpiegitura hobetzea, herrialdeko linea guztiak elektrifikatzeko ahalegina egitea, karga garraiatzeko korridoreak sortzea eta abiadura handiko lineen proiektuak egitea.

### 3.2.3. Automobilgintza

Kontsumitutako altzairu kantitateari dagokionez garrantzi handiena duen beste sektoreetako bat da automobilgintzarena eta haren osagaiena. Indiako laugarren merkatu handiena da, eta bi eta hiru gurpileko ibilgailuen eta traktoreen produkzioan liderra da. Lau gurpileko ibilgailuen kontsumoak bultzatuta, sektorea hazi egingo dela espero da, bi gurpilen kalterako, pandemiaren ondorioz. Gobernuak mundu osoan merkatu hori lehiakor bihurtzeko programa bat kudeatzen du, eta arreta berezia jarri du ibilgailu elektrikoetan. Ibilgailu elektrikoaren aldeko joeraren ondorioz, produzitutako ibilgailu bakoitzeko altzairu gutxiago kontsumituko da, osagai gutxiago behar baitituzte.



### 3.2.4. Ekipo-ondasunak


Kontsumo osoaren % 15en baliokideak dira kapital-ondasunak ere altzairuaren eta haren deribatuen eskatzaile garrantzitsuak dira, batez ere era guztietarako makinak produzitzeko (eraikuntzarako eta lurrik mugitzeko, eta makina-erreminta produzitzeko). Hori dela eta, sektore horrek bigarren sektore batzuekiko eta ekonomiaren garapen onarekiko mendekotasun handia du. Batez ere esportazioei esker garatu den merkaturia da, baina hazkundea ez da gelditu (nahiz eta oso sendoa ez den). Herrialdearen BPGaren % 4 biltzen du sektore horrek

### 3.2.5. Tarteko produktuak

Automobilgintzarekin, petrolioaren eta gasaren sektorearekin eta industriarekin lotura estua du. Hala, sektore horretako altzairuzko produktu garrantzitsuenak abiadura-kaxak eta horien zatiak eta lehengaiak erazteko eta garraiatzeko hodiak dira.

## 3.3. Aurreikuspenak, inbertsio-proiektuak eta gobernuaren politikak

### 3.3.1. Aurreikuspenak



3. taula: Altzairuaren urteko produkzioa eta 2027rako eta 2030erako proiektzioa\* \*\*2018-2019 alditik aurrera, datuak zenbatzeko metodoa aldatu egin zen. Bertan egina. Iturria: Indiako Altzairuaren Ministeria.

Hazkunde nabarmena aurreikusten da, hein handi batean gobernuaren inbertsioari esker, bereziki Altzairuaren Politika Nazionalen lehentasunezkoztat jotzen dituen sektoreetan. Sektore horiek automobilgintza, energia, aeroespaziala, defentsa eta nuklearra dira. Bestalde, eta "Make in India" politikaren ondorioz, hainbat sektore egokituko dira jasangarritasunaren eskakizunetara, eta, era berean, hazi egingo dira ekonomiaren garapen egokiari esker. Era berean, Indiako sektore siderurgikoa hazi da gehien azken urtean.

Sektorearen azken 15 urteetako garapena erreferentziatzen hartuta, haren hedapena esanguratsua da. Produktzioak % 75 egin du gora 2008tik eta eskariaren igoera, aldiz, % 80koa izan da. 2022an, altzairu gordinari eta amaitutako altzairuaren produkzioa 133,6 milioi tonakoa eta 120 milioi tonakoa izan zen hurrenez hurren.



Gai honekin lotuta gobernuak duen jarrera bereziki positiboa da; horrek, 2030erako, guztizko produkzioaren ia % 200eko igoera iragartzen du. Inbertsioari laguntzeko ekimen bat dago abian, eta horrek atzerriko inbertsio zuzenaren % 100 lantegi berrietako proiektuetara iristea ahalbidetzen du.

2000. urtetik 2022ra, atzerriko zuzeneko inbertsioaren fluxua 17 mila milioi dolarrekoa izan zen gutxi gorabehera. Kopuru horiekin, 2030erako 300 milioi tonako produkzio-zifrak lortzea espero du gobernuak (eta kopuru horretatik hurbil izatea eskaria). Ildo horretan, 2027ra begira, merkatua 270 milioi tona produzitzeko gai izatea espero da. Horren guztiaren balioa 105,8 milioi dolarrekoa litzateke.

Beste eragile batzuk ere baikor agertu dira aurreikuspenei dagokienez, baina zifrak ez dira hain handiak. Honako hauek dira, adibidez, Markets and Markets-en datuak:

**Indian amaitutako altzairuaren produkzioa, teknologiaren arabera, milioi tonatan adierazita.**

Teknologia	2022	2027	urteko hazkundera (%)
Labe garaiak	49,5	60,5	4,1
Arku elektrikoko labea	60,4	70,3	3,1
Guztira	109,9	130,8	3,6

4. taula: Indian amaitutako altzairuaren produkzioa, teknologiaren arabera, milioi tonatan adierazita. Iturria: markets and markets

**Indian amaitutako altzairuaren produkzioa, teknologiaren arabera, mila milioi dolarretan adierazita.**

Teknologia	2022	2027	urteko hazkundera (%)
Labe garaiak	27,5	32,7	3,6
Arku elektrikoko labea	40,2	45,8	2,6
Guztira	67,7	78,6	3,0

5. taula: Indian amaitutako altzairuaren produkzioa, teknologiaren arabera, mila milioi dolarretan adierazita. Iturria: markets and markets

**3.3.2. Inbertsio-proiektuak**

Sektorea produkzio berderantz berritzeko ahaleginek (zero isurpeneko helburua lortu nahian) eta altzairua eskatzen duen obra publikoan estatu mailan egindako inbertsio-proiektuak eragin eta aldaketa handiak sortzen ari dira industrietan, enpresetan eta produkzio-lantegietan. Bereziki garrantzitsuak dira hiri adimendunak sortzeko proiektuak. Altzairutegiei dagokienez, batez ere lantegiak handitzeko proiektuak daude.



## PROIEKTU BERRIEN KOKAPENA, ENPRESAREN ETA MOTAREN ARABERA



Lantegia handitzeko proiektuak

- A.- Vijayanagar JSW
- B.- Dolvi JSW
- E.- Jharsugudha BSPL (JSW)
- G.- Kaliganagar TATA
- I.- Duburi TSLPL (TATA)
- J.- Hazira AM/NS
- K.- Angul JINDAL STEEL




Lantegi berriak

- C.- Kadapa JSW
- D.- Jagatsinghpur JSW



Taldea berritzea

- F.- Chandigarh BSPL (JSW)
- H.- Jamshedpur TATA



Created with mapchart.net

2. irudia: Proiektu berrien kokapena, enpresaren eta motaren arabera. Bertan egina. Informazioa enpresa bakoitzeko webgune ofizialetan kontsultatu da.

Altzairutegien hedapeneko proiektu esanguratsuenen artean, honako hauek hartu behar dira kontuan:

### 3.3.2.1. JSW Steel:

Enpresak 2024rako produkzio-ahalmena handitzeko asmoa du. Horretarako, 2.400 milioi dolar bideratuko ditu hainbat hazkunde-proiektutarako:



- A. Vijayanagar: aurrekontuko 1.800 milioi dolar Vijayanagar-eko bere lantegiko ahalmena handitzeko erabiliko dira. Alemaniako enprekin akordioak adostu dituzte makinak erosteko. 4 labe garai berri, 2 galdategi eta makina osagarriak sartuko dituzte.
- B. Dolvi: Dolviko lantegi integratuaren kasuan, lantegiaren ahalmena bikoiztea planteatu dute.
- C. Kadapa: Andra Pradesh estatuko Kadapa hirian lantegi berria egingo dute eta horretarako inbertsioa 1068 milioi dolar ingurukoa izango da.
- D. Jagarsinghpur: Hasi dituzte Odesha-n Andra Pradesh-eko altzairu-lantegia eraikitzeko lanak. 13,2 milioi tonako ahalmena izango du.

Bestalde, Bhushan Power & Steel Limited (BSPL) filialak herrialdeko hainbat tokitan ahalmenak handitzea aurrez ikusi du. Honako hauek izango lirateke garrantzitsuenak:

- E. Jharsugudha: Odesha estatuan dagoen instalazio horrek altzairuaren produkzio integrala egiten du.
- F. Chandigarh: Produktu lauak eta hodiak produzitzen dituen lantegiak hedatzeko planak ditu.

### 3.3.2.2. Tata Steel

Tata enpresak 768 mila milioi dolar inguru inbertitu ditu dagoeneko instalazioak handitzen, berritzen eta abian jartzen herrialde osoan. Horren guztiaren helburua da 2030erako bere produkzio-ahalmena bikoiztea eta, horrenbestez, proiektu berriak iragarriko dituela aurrez ikus daiteke. Oraingoan, hauek nabarmendu behar dira:

- G. Kaliganagar: Odishako lantegia hedatzea proiektatu dute (hazteko hiru faseetako bigarrenean dago). Produkzio integraleko lantegia da eta, neurriari dagokionez, herrialdeko bigarrena da.
- H. Jamshedpur: Lantegi honetan, makinaren zati bat berritzeko asmoa dute.

Bestalde, Tata Steel Long Products Limited (TSLPL) filialak Neelanchal Ispat Nigam-ek Odishan duen lantegia erosi zuen aurreko ekitaldian.

- I. Duburi: Neelanchal Ispat Nigam-en lantegia Duburi-n dago, Jajpur-etik gertu. Enpresaren helburua da produkzio-ahalmena ia % 275 handitzea urtean produzitutako tona kopurua 5 milioira iristeko (gaur egungo produkzioa 1,9 milioi tonakoa da).

### 3.3.2.3. Arcelor Mittal Nipon Steel India (AM/NS India)

Enpresak hurrengo urteotarako hazkunde handia proiektatu du eta, horretarako, bere ahalmena handitzeko asmoa du.

- J. Hazira: 20 mila milioi dolar baino gehiagoko inbertsioarekin, Hazira-n (Gujarat) duen lantegia handitzea proiektatu du.

### 3.3.2.4. Jindal Steel & Power

- K. Angul: 2030erako ahalmenak zabaltzea eta hedatzea proiektatu dute. Gainera, altzairuaren mundu mailako produkzio-lantegi handiena sortu nahi dute bertan.



### 3.3.3. Gobernuaren politikak

Indiako gobernuak altzairuaren kontsumo handia ekonomia osasuntsuarekin eta indartsuarekin lotzen du. Ekonomiaren osasun-egoera eta ahalmenak neurtzeko adierazle gisa erabiltzen dute. Altzairuaren *per capita* kontsumoa ere oso garrantzitsua da, baina, munduko gainerako herrialdeekin alderatuta, batezbestekotik oso urrun dago, nahiz eta produkzioari dagokionez bigarren herrialde garrantzitsuena izan. Alde handi hori herrialdeko biztanleria handiarekin lotuta dago. Hori dela eta, gobernuak hainbat proposamen egin ditu kontsumo handiagoa bultzatzeko eta, hartara, herrialde garatuaren antzeko zifrak lortzeko, eta azken urteotan, merkatu horren karbono-aztarna murrizteko.

Altzairuaren Ministerioak ("Steel Ministry") du politika guztiak garatzeko, idazteko, proposatzeko eta kudeatzeko ardura. Gaur egun, horrekin guztiarekin lotuta kontuan izan beharreko lau dokumentu daude: **National Steel Policy (NSP), Production Linked Incentive (PLI), Steel Scrap Recycling Policy eta Policy for Providing Preference to Domestically Manufactured Iron and Steel in Government Procurement (DMI&SP)**

Bestalde, kontuan hartu behar dira "Make in India" politikaren ondorioak. Politika horrek tokiko produkzioa sustatzen du barne-kontsumorako eta esportaziorako. Nahiz eta siderurgia sektorea ez dagoen politika horren barruan, sektore gehienak altzairuaren mende daude eta, beraz, eragin handia izango dute material horren eskaeran.

#### 3.3.3.1. National Steel Policy (NSP)

Altzairuaren Politika Nazionala 2017an argitaratu zuten, pandemiaren aurretik, 2030era begira gobernuak lortu nahi zituen helburuak zehazteko asmoz. Gobernuaren azken helburua da hazkundera sustatuko duen eta teknologikoki aurreratua eta globalki lehiakorra izango den altzairu-industria garatzea. *Per capita* kontsumoaren helburua hirukoiztu egingo litzateke, 60 kg-tik 160 kg-ra. Gainera, urte horretarako merkatuak presentzia globala izan beharko luke balio erantsi eta kalitate handiko produktuarekin. Horretarako, koke bihur daitekeen garbiketako ikatzaren produkzio-ahalmena handitu beharko luke herrialdeak. Era berean, segurtasuneko eta osasuneko estandarretara ere egokitu beharko dute.

Gobernuaren aurreikuspenen arabera, 2030erako altzairu-eskaera 230 milioi tonara igoko da Estatuan, eta produkzio-ahalmena, berriz, 300 milioi tonara. Altzairua bereziki garrantzitsua izango da landa-eremuak, hiri-azpiegitura, errepideak, bideak eta abar garatzeko. Dokumentu honen bidez, gobernuak altzairuzko egiturak, berriak edo lehendik dauden azpiegiturak ordezkatzeko lituzketenak, eraikitzea sustatzeko konpromisoa hartu du. Produkzio-ereduei dagokienez, labe garaiaren bidezko produkzioa merkatuaren % 60-65era iristea espero da; merkatuaren gainerakoa (% 35-40), berriz, arku elektrikoko labeak eta indukzio-labeak osatuko lukete.

Gainerakoan, dokumentuan aipamen berezia egiten zaie galdategietako erregai alternatiboetan egindako inbertsioei, eta bereziki nabarmendu behar da gasarena. Hala, ezinbestekoa da gas naturala garraiatzeko eta kudeatzeko azpiegituran inbertsioak egitea, baita labe garaiak erregai berriekin funtziona dezaten egokitzea ere.

Indiako gobernuak detektatutako erronka nagusien artean, nabarmentzekoak dira sektorearentzat ezinbestekoak diren lehengairik eza eta produkzio-instalazioak eraikitzeko lurrak eskuratzea. Horiek guztiak politika jakin batzuei eta burokraziarekin eta prozedurekin lotutako arazoei lotuta daude. Gobernuak kudeatu behar duen beste eragozpen bat baliabide hidriko eta energetikoetarako irisgarritasuna kudeatzea da.

Bestalde, inbertsio handia egin behar da altzairuaren produkzioak garrantzi handiagoa duten estatuetako azpiegiturretan. Bereizki esanguratusak dira Odisha, Chhattisgarh eta Jharkhand, Karnatakaren kalterako.





Indiako altzairuaren merkatuan enpresa txiki eta ertain ugari daude. Batez ere arku elektrikoko labeak eta indukziokoak erabiltzen dituzte eta horiek altzairua produzitzen dute, zuzeneko erredukzioko burdina eta txatarra erabilia. Altzairuaren politika nazionalak sektore hori babestea aurreikusten du, eta koke-ikatzaren zati bat hura kontsumitzeko gordetzen du, produktu horren merkatu irekian parte hartzeak eragingo lukeen gailak saihestuz. Gainera, berrikuntza teknologikoa sustatzen da, produkzioan eraginkortasun handiagoa lortzeko, produktibitatea handituz eta energia-baliabideak hobeto aprobetxatuz.

### 3.3.3.2. Production Linked Incentive (PLI)

Programa hori 2021eko udan onartu zen, altzairu espezializatuaren produkzioa sustatzeko, gaur egun herrialdean produzitzen ari denak duena baino balio erantsi handiagoarekin. Horrela, herrialdeak ez du produktu horien inportazioekiko halako mendekotasunik izango. Interesak honako hauek dira espezifikoki: Altzairu estalia, erresistentzia handiko altzairua, errail bereziak, altzairu aleatuzko produktuak eta altzairuzko alanbreak eta altzairu elektrikoa. Programak sektorearen garapena sustatuko du inbertsioari lagunduta. 2027ra arte iraungo du, eta enpresek teknologian inbertsio handiak egitea espero da, gobernuak ezarritako eskakizunetara egokitzeko eta helburuak lortzeko.

### 3.3.3.3. Steel Scrap Recycling Policy

Altzairua Birziklatzeko Politika 2019an onartu zuten helburu argi batekin sustatuta: 2030erako Indiako merkatuaren autosufizientzia lortzea. Hondakin metalikoak sortzen dituzten sektoreek sortzen duten txatarraren kontsumo eta kudeaketa eraginkorra eta arduratsua lortzeko jarraibideen multzoa da. Gaur egun, eskaintza defizita dago, baina ekonomiaren eta gobernu-politiken hazkundearen ondorioz altzairu-kontsumoa handitzeak eskaintza hori ere igo egingo duela espero da. Helburua da labe elektrikoen altzairutegi txikiei lehengaita hornitzea, horiek baitira herrialde horretan txatarraren eskatzaile nagusiak. Horretarako, 2030erako 700 birziklatze-instalazio inguru sortzea aurreikusten da. Instalazio horiek txatarra erabili eta kudeatzeko makina eta espazio isolatu egokiak izango lituzkete.

### 3.3.3.4. Policy for Providing Preference to Domestically Manufactured Iron and Steel in Government Procurement (DMI&SP)

Politika instituzional horretan zehazten da gobernuaren lizitazioetan tokiko altzairuzko produktuak erabiltzea lehenetsiko dela gutxienezko kuoten bidez. Kuota horiek erabiltzeko gutzizko altzairuaren % 15 eta % 50 artekoak izan daitezke proiektuaren eta zehaztapenen arabera. Gobernuak edo haren mendeko agentziek sustatutako 10.000 milioi dolarretik gorako proiektu orori aplikatuko zaio politika hori.

## 3.4. Altzairu-inportazioei buruzko Europako araudia eta Indiako Merkatuaren Egokitzapena

Gaur egun, altzairua Indiatik inportatzeko kontuan hartu beharreko hainbat araudi daude, bai ekonomikoak, bai estandarrekin lotutakoak, eta bereziki garrantzitsuak dira lehenengoak. Aurreko hamarkadan, Europar Batasuneko Batzordeak ikerketa bat egin zuen, industriak eta merkatuak Batasunean bizi duten egoera baloratzeko. EBren ondorioa izan zen Europar produzitzen ziren produktuen antzeko edo berdinak diren produktuen inportazioak zirela mehatxua, eta zenbait tarifa ezarri zituen altzairua kide guztiei esportatzeko, araudi baten arabera.

Araudi hori, "2019ko urtarrilaren 31ko BATZORDEAREN 2019/159 BETEARAZPEN ERREGELAMENDUA (EB)" izenekoa, 2019. urtean ezarri zen, hasiera batean bi urterako, baina 2022ko martxoaren 15ean eguneratu eta "BATZORDEAREN 2022/434 BETEARAZPEN ERREGELAMENDUA (EB)" izenburupean argitaratu zen. Araudia 2024ko ekainean amaitzea aurreikusten da, eta herrialde eta aldien arabeko muga-zerga batzuk ezartzen ditu. Horietatik abiatuta, % 25eko muga-zerga aplikatuko da. Indiarentzat, horrek eragina du Batzordeak osatu zituen 26 kategorietatik 15etan. Produktu guztiak hiru kategoriatan sailkatzen dira: produktu lauak, produktu luzeak eta hodiak ("1. ERANSKINA"). "2. ERANSKINEAN", eragindako produktuen zerranda ikus daiteke, bai eta Txinako produktuen ezarpenekin egindako konparazioa ere. "1. ERANSKINA" eta "2.



ERANSKINA” kontuan hartuta, ikusten da eragina jasandako Indiako produktu gehienak produktu lauen familiakoak direla; Txinakoak, berriz, tubularrak edo hodiak dira.


Gainera, 2021eko uztailaren 14an onartutako Karbono bidezko Muga Doitzeko Mekanismoa bete behar da. Mekanismo horretan, 72. kategorian sartutako produktuek (7202 eta 7204 kategoriakoak izan ezik, ferroaleazioak eta txatarra, hurrenez hurren) eta 7301 eta 7307 kodeen artean jasotako produktu tubularrek eragina jasan dute, eta inportatzaileak dagokion tarifa ordaindu beharko du produkzio- eta garraio-prozesuaren ondorioz atmosferara igorritako karbono dioxidoaren kalkulua egin ondoren. Errekargu handiagoa saihesteko, Indiako Gobernuak industria berdeagoaren alde abian jarritako ekimenak egokiak dira, baina egokitzeko denbora luzea beharko da

### 3.5. Esportazioak eta inportazioak

Azken urteotan, esportazioen zifrak erdira jaitsi dira gutxi gorabehera, eta inportazioak, berriz, pixka bat hazi. Une honetan, 3 mila milioi dolar inguruko defizita dago esportazioetan. Herrialde barruan eskaria hazi egin delako gertatu da hori, garapen-prozesuan aldaketa handiak jasaten ari baita. Europarekin lotutako esportazioan kasuan, aldiz, joera alderantzizkoa da, gerraren testuingurua dela eta. Europara egindako esportazioek igoera izan dute.

Pandemiaren urtea, 2020a, erreferentzia gisa hartuta, Indiatik Europarako altzairu-esportazioek gora egin dute azken 3 urteetan, 1.700 milioi eurotik 10.000 milioi eurora igaro baitira 2022an. Hazkunde hori bi arrazoiengatik gertatu da batez ere: alde batetik, pandemiaren ondoren ekonomiak normaltasunera itzuli izana eta, bestetik, Ukrainako gerra eta Europak lehengai-hornitzaile berriak bilatzea. Indiako altzairua inportatzen duten hiru herrialde nagusiak Italia, Belgika eta Espainia dira. Espainiara eta Euskadira soldadurarik gabeko hodiak eta altzairu ijektuko xaflak esportatzen dira nagusiki.


Altzairuaren eta burdinaren esportazioak eta inportazioak, guztira (TARIC 72)



6. taula: Indiatik eta Indiara egindako altzairuaren esportazioak eta inportazioak. Bertan egina. Iturria: Indiako Merkataritza Ministerioa.



## Indiatik Europara egindako altzairuaren eta burdinaren esportazioak eta inportazioak (TARIC 72)




7. taula: Indiatik Europara egindako altzairuaren esportazioak eta inportazioak. Bertan egina. Iturria: Europako Batzordea.


### 3.5.1. Esportatutako eta inportatutako produktu nagusiak

Esportatutako altzairuzko produktuei dagokienez, 4. taulan ikus daitekeenez, Indiatik batez ere iaz honako hauek esportatu ziren: “aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko produktu ijestu lauak, 600 mm edo gehiagoko zabalerakoak, beroan ijestutakoak, xaflatu eta estali gabeak”, TARIC 7208 kodea. Altzairu-esportazioen % 25 dira; ondoren “ferroaleazioak” daude, TARIC 7202 kodekoak, % 16an, eta jarraian “aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko tarteko produktuak”, TARIC 7207 kodedunak, % 13. Gaur egun, oraingoz, ferroaleazio gehiago esportatu dira, nahiz eta produktu ijestuak inportazio horren zati handi bat izaten jarraitzen duten.

#### EXPORTACIONES DE PRODUCTOS ELABORADOS A PARTIR DE COLADA CONTINUA (TARIC 72 Y 73)



#### ISURKETA JARRAITUARI ESKER PRESTATUTAKO PRODUKTUEN INPORTAZIOAK (72. ETA 73. TARIC)



2


8. taula: Indiak esportatutako eta inportatutako eta isurketa jarraitutik prestatutako altzairuzko produktu nagusiak. Bertan egina. Iturria: Indiako Merkataritza Ministerioa.

<sup>2</sup> Kontsultatu 3. ERANSKINA talde bakoitzari dagozkion TARIC kodeak ezagutzeko



Inportazioak, berriz, lehengaiak lortzean oinarritzen dira. Horien artean nagusi dira honako haueetatik eratorritakoak: “galdaketako hondakinak eta hondarrak (txatarra), burdina edo altzairua; burdinazko edo altzairuzko txatarra-lingoteak” (TARIC 7204 kodea). Gainera, esanguratsuak dira honako hauen inportazioak ere: “tutu eta profil hutsak, soldadurarik gabeak (josturarik gabeak), burdinazkoak edo altzairuzkoak”, TARIC 7304 kodea.

### 3.5.2. Makinak



9.

taula: 2021-2022 eta 2022-2023 urteen artean altzairua tratatzeko erabilitako makinien esportazioetan gertatutako aldaketa. Bertan egina. Iturria: Indiako Merkataritza Ministerioa.


Altzairua tratatzeko makinei dagokienez, metalurgiarako, altzairutegietarako edo galdategietarako labeen, bihurgailuen, isurketa-zalien, lingote-ontzien eta galdatzeko (moldekatzeko) makinien eta metala eta haren zilindroak ijazteko makinien inportazioa handitu egin da. Bestalde, labe-zatien inportazioa gutxitu egin da azken urtean.

#### **Makinien esportazioak Euskaditik**

Euskaditik Indiara esportatzen diren makina gehienak labeak dira, batez ere piezaka esportatutakoak. Hain zuzen ere, azken 3 urteotan egindako labe osoen bidalketak oso gutxi izan dira. Ondorengo taulan ikus daiteke esportazioetan gertatu den aldaketa. Horrekin lotuta, pandemiak mota horretako produktuetan eragin gutxi edo eraginik ez zuela izan ikus daiteke.



## Euskaditik esportatutako makinak (milaka eurotan)



10. taula: Altzairua eta burdina tratatzeko erabilitako makinaren esportazioak. Bertan egina. Iturria: Espainiako Merkataritza Ganberaren kanpo-merkataritzako datu-basea.



**BALIO KATEA**



## 4. BALIO KATEA

Altzairua produzitzeko balio-katean hainbat etapa daude. Etapa horietan, enpresa handienak dira integrazioerik handiena dutenak, eta prozesu guztiak kontrolatzen dituzte: erauzketatik hasi eta azken produktua lortu arte.

Funtsean, lau prozesu bereiz ditzakegu altzairuaren produkzioan:

1. Labe garaian erretzeko beharrezkoa den burdinaren eta ikatzaren minerala erauzteak.
2. Altzairuaren produkzioa, karbonoarekin eta beste osagai batzuekin nahastuta, sortu nahi den altzairu motaren arabera.
3. Altzairu gordina era askotara eraldatzea, bitarteko produktu gisa saltzeko edo enpresan erabiltzeko.
4. Azken produktuak produzitzea laugarren eraldaketa-prozesuan.

Sektoreko konpainia garrantzitsuenak ia erabat integratuta daude balio-kate osoan; enpresa txiki eta ertainak, berriz, txatarra birziklatzen espezializatzen dira normalean, eta, beraz, gehienez ere, lau prozesuetatik hirutan pilatzen dira, nahiz eta normalean azken bi urratsetan kontzentratzen diren.

### 4.1. Sektoreko enpresa nagusiak

Altzairua produzitzen duten Indiako enpresa nagusiak, merkatuan rol protagonista dutenak, hiru dira: Tata Steel, neurri handia eta subsidiario asko dituen enpresa; JSW, ISPAT Steel eta Jindal Vijayanagar Steel Limited enpresak batu izanaren ondorioa da eta herrialdeko altzairuaren konglomeratu garrantzitsuenetako bat bihurtzeraino hazi da; eta Steel Authority of India Limited, SAIL, herrialdean 8 lantegi baino gehiago dituen Estatuko enpresa. Hurrengo taulan azaltzen dira enpresa nagusiak:

Enpresa	Produkzio-lantegi nagusiak	Instalaturako ahalmena, urtean	2030-2031rako proiektaturako ahalmena	Produkzioa (t miloi/urtean)	Bezero-industria
<b>Tata Steel Limited</b>	Jamshedpur Kalinganagar Meramandali Ludhiana	20	40	19	Automobilgintza
					Nekazaritza
					Eraikuntza
					Ingeniaritza, oro har
					Industria
					Trengintza
<b>Produkzio mota:</b>	Labe garaietako altzairuak, beroan ijeztutakoak, hotzean ijeztutakoak, kableak, estalitako produktuak, altzairu elektrikoa eta aleazio bereziak. Baita herdoilgaitzak ere				
<b>Produkzioaren helburua:</b>	Bertakoa: 13,61 miloi t/urtean: Produzitutakoaren % 85,55				
	Esportatuta: 2,60 miloi t/urtean: Produzitutakoaren % 14,45				
